

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### **Euskara ikasteko 2020ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2020ko maiatzaren 14ko erabakiaren laburpena**

BDNS(Identif.): 510719

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

16 urtetik gorako pertsonak, ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta ikastaroaren azken egunera arte (azken hau barne) Zuiako udalerrian etenik gabe errolatuta badaude.

#### **Bigarrena. Xedea**

2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean euskaltegietan edo HABEk homologatutako zentroetan eta 2020. urtean barnetegi homologatuetan egindako ikastaroak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko maiatzaren 14an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Partidaren diru-zuzkidura 10.000 eurokoa da.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroaren matrikula-zenbatekoaren ehuneko 85 izango da, eta gehienez ere 600 euro urtean.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Hilabete bat ikastaroa amaitzen denetik.

#### **Seigarrena. Beste datu batzuk**

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak [www.zuia.eus](http://www.zuia.eus) orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2020ko maiatzaren 14an

*Alkate-udalburua*

*UNAI GUTIERREZ URKIZA*